FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

Finkatuz URTEKO MEMORIA

2025

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Testuingurua: Finkatuz-en 2025eko urteko memoria

Memoria hau abenduaren 27ko 13/2019 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak) ezartzen dituen betebeharrak beteta egin da. Lege horren hamabigarren xedapen gehigarriaren ("Finkatuz finantza-partaidetzen funts estrategikoa") arabera: "Finantzen Euskal Institutuak Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari Finkatuz funtsaren kargura egindako eragiketei buruzko informazioa emango dio, eragiketak egin eta hiru hilabeteko epean, eta funtsaren kudeaketari buruzko urteko memoria argitaratuko du".

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA. FINKATUZ	4
2. PARTAIDETZAPEKOEN ZORROA	9
3. FINANTZA-INFORMAZIOA	20
4. ERAGIN ESTRATEGIKOARI ETA IGG-EI BURUZKO DATUAK	23

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

1. HITZAURREA. FINKATUZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HITZAURREA: Finkatuz

Finkatuz 2021eko apirilean sortu zen, euskal ekoizpen-sarearen bultzatzailetzat jotzen diren enpresa handiak Euskadin errotzea sustatzeko

2021eko apirilaren 13an, Gobernu Kontseiluak baimena eman zion Finantzen Euskal Institutuari (FEI) "Finkatze Kapitala Finkatuz S.A." (aurrerantzean, Finkatuz) sozietate publikoa sortzeko, zertarako-eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa handietan epe luzerako finantza-partaidetzak gauzatzeko, eta, hartara, bermatzeko enpresa horiek Euskadin errotuta jarraitzen dutela eta euskal ekoizpen-sare osoan bultzatzaile direla. Horretarako, abenduaren 27ko 13/2019 Legeak hamabigarren xedapen gehigarrian ezartzen duen finantza-partaidetzarako funts estrategikoa erabiliko da (lege horren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak).



Magnitude nagusiak

2025eko itxiera

Inbertsio-ahalmena*	Bolumen inbertitua**	Partaidetzapekoen kopurua
307 milioi euro	**% 76**	**7**

2024ko itxiera

Inbertsio-ahalmena*	Bolumen inbertitua**	Partaidetzapekoen kopurua
307 milioi euro	**% 21**	**3**

Finkatuz-en inbertsio-ahalmena

2025. urtearen amaieran, Finkatuz-ek **307 milioi euroko** inbertsio-ahalmena zuen, eta Euskadiko inbertsioen bultzatzaile nagusietako bat zen.

Egun horretan, Finkatuz-ek **73 milioi euroko** kutxa zuen, eta, zorroaren eragiketak eta etorkizunean egin daitezkeenak gauzatu ahala, kutxa gutxitu egingo zen.

Inbertitutako bolumena (2024-2025)

2025aren amaieran, Finkatuz-en inbertsio-ahalmenaren **% 76 inbertituta** zegoen, eta **% 24**, **inbertitu gabe**. Guztira, **275 milioi euro** erabili dira orain arte (CAF, ITP Aero, Kaiku, Arania Taldea, Ohmnia/Innometal, Arteche eta Talgo), eta **41,8 milioi euro berreskuratu dira** (38 milioi euro ITPren jaulkipen-prima banatzeko, eta 3,8 milioi euro dibidenduen bidez). Hala, **73 milioi euro erabilgarri geratu dira etorkizuneko eragiketetarako** (etorkizuneko diru-sarrerak eta gastuak kontuan hartu gabe).

Hala, enpresa bakoitzeko **batez besteko inbertsio-bolumena 34 milioi euro** ingurukoa da.

* Inbertsio-ahalmena Finkatuz-en kapital sozialaren (300 milioi euro) eta Kaikun duen partaidetzagatik egindako diruzkoa ez den ekarpenaren (6,6 milioi euro) baturari dagokio. Ekarpen hori Finkatuz-en 2025eko egoeraren balantzearen "Bazkideen beste ekarpen batzuk" epigrafean sartzen da.
** Inbertitutako bolumena inbertsioetan benetan gauzatutako inbertsio-ahalmenaren ehunekoari dagokio, kutxa erabilgarria kenduta.

Finkatuz-en kronologia

2025ean, FEIk Euskadi Eraldatuz 2030 Plana onartu zuen, Euskal Finantza Aliantzaren esparruan 1.000 milioi euroko inbertsioa egiteko.

Testuinguru horretan, Gobernu Kontseiluak baimena eman zuen **Finkatuz-en 350 milioi euroko kapital-zabalkuntza egiteko 2026an**. 2025ean, errotzeko estrategia ere eguneratu zen: 50 milioi euro baino gehiagoko fakturazioa duten enpresetara zabaldu zen esparrua, eta IGG irizpideak sartu ziren.

Kronologia

2021
- Finkatuz sortu zen
- Hasierako kapital soziala: 160 M €
- Bazkideen ekarpena: + 50 M €

2022
- Lehenengo inbertsioa: ITP Aero
- Bigarren inbertsioa: CAF
- Hirugarren inbertsioa / Bazkideen ekarpena: Kaiku
- Lehenengo kapital-zabalkuntza: + 100 M €*

2023
- Bigarren kapital-zabalkuntza: + 40 M €
- Sarrera berrien azterketa eta negoziazioa
- Harremanak indartzea tokiko inbertitzaileekin
- Amaierako kapital soziala: 300 M €

2024
- Aldaketarik ez kapital sozialean
- ITP – jaulkipen-primaren banaketa: 38 milioi euro
- Araniako inbertsioaren azterketa eta negoziazioa

2025
- Aldaketarik ez kapital sozialean
- Estatutu sozialak aldatu ziren, Euskadi Eraldatuz 2030 Planarekin bat egiteko
- Beste 4** inbertsio (171 M€): Arania, Ohmnia/Innometal, Arteche eta Talgo

2026ko 1. seihilekoa
- Bigarren kapital-zabalkuntza: + 350 M€***
- Beste bi inbertsio 2026ko ekainera arte: Ayesa eta Iparlat

Inbertsio-irizpideak

Konpainia batean sartzeko erabakiak hartzeko bete beharreko oinarrizko inbertsio-printzipioak estatutuetan zehaztutakoak dira:

TAMAINA
50 milioi eurotik gorako fakturazio-bolumena, eta gutxienez 30 langile

ERROTZEA
Egoitza sozial eta fiskala eta establezimendu iraunkorra EAEn, edo hona ekartzeko konpromisoa

ERAGINA
Ondorio positiboa — zuzenekoa edo zeharkakoa— izan dezatela ekonomia-sarean

SEKTOREA
Zeharkakoa, baina, batez ere, sozietatearen estatutuetan adierazitakoak

ZORROA
Arriskuaren dibertsifikazioa bermatu beharko da, eta sektore batean % 30 baino gehiago biltzea saihestu

PARTAIDETZA
Gutxienez % 5 (% 3 sozietate kotizatuetan), eta inoiz ez kapitalaren % 49 baino gehiago

BILTZEKO MUGA
Sozietate batean, partaidetzak ez luke Finkatuz-en kapital sozialaren % 20 gainditu behar

BULTZATZEA
Lehentasuna emango zaio ikuspegi eta konpromiso bera duten bazkide pribatuekin batera egindako inbertsioari

JASANGARRITASUNA
Kontuan hartuko dira, batetik, IGG arriskuak inbertsioan eta, bestetik, eremu horretako helburuak lortu izana

Politika publikoekin bat egitea

Kapital-partaidetzak hartzearen helburua da Eusko Jaurlaritzaren plan eta politika publikoekin bat egitea. Horretarako, partaidetzapeko konpainien Administrazio Organoan ordezkari bat izendatzea sustatuko da, gaitasun, esperientzia eta arduraldi egokiak dituena.

* 50 milioi euroko ekarpena 2021ean, eta 50 milioi euroko kapital berria.
** 2025eko abenduaren 31n Ayesaren erosketa sinatu zen. Eragiketa 2026ko lehenengo seihilekoan amaitu zen.
*** Orain arte 87,5 milioi euro ordaindu dira.

2025ean erdietsitako helburuak

Magnitude guztietan gainditu ditu Finkatuz-ek 2025erako ezarritako helburuak.

	2025eko aurrekontua	Erreala (2025)	Aurrekontuaren lorpena
Egindako inbertsioak	150 M€*	171,1 M€	✓
Inbertsioen kopurua	#4	#4	✓
Finantza-sarrerak	1,1 M€	1,5 M€	✓
Ekitaldiko emaitza	0,1 M€	1,1 M€	✓

* 2025eko hasierako aurrekontuan (150 milioi euro) beste 22 milioi euro sartu ziren.

2025ean egindako eragiketak

Finkatuz-ek 4 inbertsio egin ditu EAEko industria bultzatzaileetako eragiketak egiten dituzten euskal konpainietan; guztira, 171 milioi euro inbertitu ditu.

2030eko Industria Planaren sektore estrategikoak

SEKTOREAK	Helburu komunak	% Finkatuz-en partaidetza*	Finkatuz inbertsioa	Partzuergoa / Funtsezko bazkideak
Grupo Arania — Metalurgia	Eskalagarritasuna / hazkundea	% 6,25	15 milioi euro	Familia sortzailea
Ohmnia Innometal Group — Elektronika eta metalurgia	Talentua garatzea; Errotzea	% 24,90	35 milioi euro	Industria-ezagutza** + Errotzea — mirai Investments; Vital Fundazioa
Arteche — Sare elektrikoak eta sare adimendunak	Tokiko hornidura-katea bultzatzea	% 6,40	75 milioi euro	Familia sortzailea
Talgo — Mugikortasun jasangarria	Kapital pribatua erakartzea	% 7,84	46 milioi euro	Industria-ezagutza** + Errotzea — mirai Investments; bbk; Vital Fundazioa
			171 milioi euro	

* Finkatuz-en partaidetza 2025eko abenduaren 31n.
** Mirai Investments inbertsio-sozietatea da, Sidenorri lotua eta industria-esperientzia handikoa.

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

2. PARTAIDETZAPEKOEN ZORROA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Finkatuz-en inbertsio-zorroa (1/2)

2025aren itxieran, Finkatuz-ek zazpi inbertsio zituen zorroan* hainbat enpresatan, eta helburua da lurraldean errotuta jarrai dezatela eta bultzatzaile izan daitezela EAEko ekonomia- eta gizarte-sarean.

ITP AERO

- Egoitza: Zamudio (Bizkaia)
- Sektorea: Aeronautika
- Jarduera: Motor eta osagai aeronautikoak diseinatu, garatu eta fabrikatzea
- Inbertsio-urtea: 2022
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 6,0
- Fakturazioa: 1.882 milioi euro (2025)
- Langileak: 6.256 (2025)

CAF

- Egoitza: Beasain (Gipuzkoa)
- Sektorea: Trenbideak eta autobusak
- Jarduera: Autobusak, trenak, metroak, tranbiak eta beste trenbide-sistema batzuk diseinatzea, fabrikatzea eta mantentzea
- Inbertsio-urtea: 2022*
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 3,0
- Fakturazioa: 4.487 milioi euro (2025)
- Langileak: 17.788 (2025)

Kaiku

- Egoitza: Donostia (Gipuzkoa)
- Sektorea: Elikadura
- Jarduera: Esnekiak saldu, merkaturatu eta banatzea
- Inbertsio-urtea: 2022**
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 7,3
- Fakturazioa: 585 milioi euro (2025)
- Langileak: 1.841 (2025)

* CAFeko inbertsioa egin zen SOCADE sozietate publikotik egindako intsuldaketa baten bidez (% 1,41) eta merkatu irekiko eragiketen bidez (% 1,59).
** KAIKUren inbertsioa FEItik Finkatuz-era intsuldatu zen 2022an. FEIk 2019an egin zuen inbertsioa konpainian.



Finkatuz-en inbertsio-zorroa (2/2)

- Egoitza: Zamudio (Bizkaia)
- Sektorea: Siderurgia
- Jarduera: Altzairua hotzeko ijezketaren bidez eraldatzea eta prozesatzea; estaldurak eta metalezko osagaiak fabrikatzea
- Inbertsio-urtea: 2025
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 6,25
- Fakturazioa: 424 milioi euro (2025)
- Langileak: 1.109 (2025)

- Egoitza: Gasteiz (Araba)
- Sektorea: Elektronika eta eraldaketa metalikoa
- Jarduera: Fabrikazio metalikorako eta industria-elektronikarako irtenbide integralak
- Inbertsio-urtea: 2025
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 24,90
- Fakturazioa: 166 milioi euro (2025)
- Langileak: 898 (2025)

- Egoitza: Mungia (Bizkaia)
- Sektorea: Ekipo elektrikoen ondasunak
- Jarduera: Sare elektrikoak neurtzeko, babesteko eta kontrolatzeko ekipoak eta irtenbideak diseinatzea eta fabrikatzea
- Inbertsio-urtea: 2025
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 6,40*
- Fakturazioa: 508 milioi euro (2025)
- Langileak: 2.857 (2025)

- Egoitza: Gasteiz (Araba)
- Sektorea: Trenbideak
- Jarduera: Abiadura handiko trenak eta trenen material gurpilduna diseinatzea, fabrikatzea eta mantentzea
- Inbertsio-urtea: 2025
- FEIren partaidetzaren ehunekoa: % 7,84
- Fakturazioa: 618 milioi euro (2025)
- Langileak: 3.594 (2025)

* Finkatuz-en partaidetza 2025eko abenduaren 31n.

Zorroan dauden sektoreak eta inbertsioa, lurralde historikoaren arabera

2025eko itxiera

Inbertsio metatua
275,0 milioi euro


Konpainien kopurua
7

2024ko itxiera


Inbertsio metatua
104,0 milioi euro

Konpainien kopurua
3


Sektoreak karteran 2025ean




Metatutako inbertsioa lurralde historikoaren arabera



Inbertitutako zenbatekoa lurralde historikoaren arabera



Inbertsio-zorroa – ITP Aero (Bain Propulsion Bidco S.L.)



Egoitza: Zamudio (Bizkaia)

2025ean fakturatutakoa: 1.882 milioi euro (2024an baino % 17 gehiago)

Sektorea: Aeronautika

Langileen kopurua 2025ean: 6.256 (2024an baino % 10 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2022

Finkatuz-en partaidetza (%): % 6,00

Finkatuz-en inbertsioa: 65 milioi euro

Hitzaurrea

ITP Aero taldea motor aeronautikoen fabrikatzaile eta hornitzaile globala da (TIER1), merkatu globaleko liderretako bat. 1989an sortu zuten Sener eta Rolls Royce enpresek. 35 urte baino gehiagoko ibilbide arrakastatsua izan du, 6.200 langile baino gehiago ditu, eta funtsezko eginkizuna betetzen du abiazio komertzialeko motorrak entregatzen (guztien % 40).

Negozio-ildoak eta merkatuak

ITP Aero taldea konpainia lider globala da aeronautikako motorren (Zibila eta Defentsa) egituren eta piezen diseinuan, garapenean eta fabrikazioan, eta munduko liderretako bat da bere merkatuko nitxoan. Konpainiak motor aeronautikoen piezak eta moduluak diseinatu eta fabrikatzen ditu, hala nola presio baxuko turbinak, egitura erradialak, konpresoreak eta abar, erabilera zibilerako zein defentsarako. Horrez gain, mantentze-zerbitzuak eskaintzen ditu motor zibiletarako nahiz defentsarako.

Akzioen egitura

Gaur egun, hauek osatzen dute ITP taldearen akzioen egitura: Bain Capital eta bere inbertitzailekideak (% 84,50), Indra (% 9,5) eta Finkatuz (% 6).

EAEren gaineko eragina

ITP Aerok bost lantegi ditu Euskadin, eta 2025aren amaieran 2.744 langile zituen, gehienak kontratu mugagabeekin. Gaur egun, taldeak 450 euskal hornitzaile baino gehiago ditu, eta 176 milioi euroko baterako erosketak egin ditu lurraldean.

Euskadin, 58 milioi euro inguruko inbertsioa egin da I+G+b-n. Nabarmentzekoa da euskal zentro teknologiko eta unibertsitate nagusiekin egindako elkarlan estrategikoa (EHU, MU, CEIT, CTA, CFAA eta abar).

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025eko emaitzek erakusten dute taldearen jarduera bikaina izan zela bere negozio-unitate guztietan, eta, 2024arekin alderatuta, aise gainditu zituela finantza-neurri nagusiak. Taldeak inbertsio handiko plan bati eusten dio, industriaren hedapenari eta proiektu estrategiko transformazionalak gauzatzeari eutsi ahal izateko. Horrez gain, epe luzerako akordio estrategikoak formalizatzen jarraitzen du, eta, haiei esker, bezeroak dibertsifikatu ditu, eta bere negozio-eremu nagusietan salmentak areagotu ditu.

Inbertsio-zorroa – CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A.)



Egoitza: Beasain (Gipuzkoa)

2025ean fakturatutakoa: 4.487 milioi euro (2024an baino % 7 gehiago)

Sektorea: Trenbideak eta autobusak

Langileen kopurua 2025ean: 17.788 (2024an baino % 9 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2022

Finkatuz-en partaidetza (%): % 3,00

Finkatuz-en inbertsioa: 32 milioi euro

Hitzaurrea

CAFek , 100 urte baino gehiagoko historia duenak Beasainen du egoitza,. Mugikortasun- eta garraio-irtenbide integralen hornitzaile globala da. Tren-fabrikazioan duen jarduera historikoaz gain, taldeak elektrifikazio-, seinaleztapen-, mantentze- eta funtzionamendu-zerbitzuak ere eskaintzen ditu. 2018an Solaris erosi ondoren, CAFek hiri-mugikortasunean duen presentzia handitu zuen, zero igorpeneko eta emisio txikiko autobusen gamaren bidez.

Negozio-ildoak eta merkatuak

CAFek bi negozio-ildo nagusi ditu: trenak eta autobusak. Tren-negozioaren barruan, hiru jarduera bereizten dira: tren-ibilgailuak, zerbitzu eta irtenbide integralak eta sistemak. 2025eko ekitaldiaren itxierako datuen arabera, salmentetan % 42 izan ziren tren-ibilgailuak, % 17 zerbitzuak, % 15 irtenbide integralak eta sistemak, eta % 26 autobusak. 2025eko zifren arabera, hauek dira enpresaren merkatu nagusiak: Europa % 71 (eta, horren barruan, Espainia % 12), Amerika % 11, APAC % 8 eta munduko gainerako herrialdeak % 10.

Akzioen egitura*

% 49,80 (free-float), % 23,33 (Cartera Social), % 13,23 (BBK Banku Fundazioa), % 5,23 (Daniel Bravo Andreu), % 5,02 (Indumenta Pueri S.L.) eta % 3,00 (Finkatuz).

EAEren gaineko eragina

CAFek 14 egoitza eta ekoizpen-instalazio ditu Euskadin: 8 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 1 Araban. Guztira, 5.041 langile ditu: 4.613 Gipuzkoan, 411 Bizkaian eta 17 Araban. Taldeak EAEko 1.180 hornitzailerekin egiten du lan —518 milioi euroko erosketa-bolumena—, eta hornitzaileei laguntzeko eta haiek garatzeko hainbat ekintza egiten ditu. I+G+b arloan eginiko inbertsioa 36 milioi eurokoa da, eta euskal zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin elkarlanean aritzen da.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025ean, CAFek 6.027 milioi euroko (2024an baino % 28 gehiago) kontratazioa eta 4.487 milioi euroko (+% 7) salmentak izan zituen, eta *book-to bill*** ratioa bat baino handiagoa izan zen. Eskaera-zorroak 16.235 milioi euroko maximo historikoa lortu zuen, bereziki autobusen negozioak bultzatuta (+% 63). EBITa 246 milioi eurokoa izan zen, % 5,5eko marjinarekin, eta egotz dakiokeen irabazi garbia 146 milioi eurokoa (+% 42). Halaber, CAFek hobetu egin zuen akziodunentzako ordainsaria: mozkina 4,27 euro izan zen akzio bakoitzeko, eta dibidendua 1,52 euro akzio bakoitzeko. Finantza-mailan, finantza-zor garbia 188 milioi euroraino murriztu zen, DFN/EBITDA ratioa hobetuta (+0,5x), eta likidezia erabilgarria 1.240 milioi euroraino handitu zen.

* Akzioen egitura 2025eko abenduaren 31n.

** Epe jakin batean jasotako eskaera berrien (*booking*) eta benetan fakturatutako produktu edo zerbitzuen (*billing*) arteko proportzioa neurtzen duen adierazle ekonomikoa.

Inbertsio-zorroa – KAIKU (Kaiku Corporación Alimentaria S.L.)



Egoitza: Donostia (Gipuzkoa)

2025ean fakturatutakoa: 585 milioi euro (2024an baino % 5 gehiago)

Sektorea: Elikadura

Langileen kopurua 2025ean: 1.841 (2024an baino % 1 gutxiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2022

Finkatuz-en partaidetza (%): % 7,31

Finkatuz-en inbertsioa: 7 milioi euro

Hitzaurrea

Kaiku elikadura-sektoreko euskal enpresa handi bat da, esnearen sektorekoa, zehazki, eta egoitza soziala Miramongo Parke Teknologikoan du, Donostian (Gipuzkoa). Kaiku taldeak hainbat **esneki saltzen, merkaturatzen eta banatzen ditu**, marka propioarekin eta bere sare logistikoarekin, bai estatu mailan, bai nazioartean.

Negozio-ildoak eta merkatuak

KAIKU taldeak esnekien aukera zabala ekoizten eta merkaturatzen du, bere marka propioekin (Kaiku, Quillayes, Surlat eta Vitalait), eta hainbat herrialdetan dihardu, hala nola Espainian, Tunisian eta Txilen.

Oinarrizko kontsumitzailearengandik oso hurbil dauden tokiko esnekiek osatzen dute produktuen eskaintza, hala nola esne likidoak, jogurtak eta eratorriak (gurina, esnegaina, irabiakiak eta postreak, Kaiku Km0 eta Kaiku Gurea marken bidez), eta, batez ere, izaera berritzaile handiko produktuek (adibidez, “ready to drink” edariak, Kaiku Caffe Latterekin Estatuko liderrak izanik), baita balio handiko produktu funtzionalek ere (Kaiku Protein, Kaiku Kefir, Kaiku Ñam, Sin Lactosa, Kaikucol, Kaiku Begetal eta abar).

Akzioen egitura

KAIKU taldearen akziodunen % 92,69 kooperatibetan dago (akziodun nagusiak EMMI AG, Kaiku S. Coop eta Laboral Kutxa dira), baita Finkatuz ere (%7,31).

EAEren gaineko eragina

Euskadin bost instalazio ditu, bi Gipuzkoan (egoitza Donostian eta logistika-bulegoa Adunan), bat Araban (plataforma logistikoa) eta bi Bizkaian (merkataritza eta marketina Derion eta logistika-bulegoa Trapagaranen). Euskadiko lantaldea 153 langilek osatzen dute, eta tokiko 372 hornitzailek osatzen dute sarea. Guztira, 68 milioi euro baino gehiagoko erosketak egin dituzte lurraldean.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025ean, Kaiku taldearen salmentek marka historikoa lortu dute (2024an baino % 4,7 gehiago), eta hazkundea izan dute jarduten duen hiru merkatuetan.

Taldearen emaitzek bilakaera positiboa izan dute, eta 2024an lortutako emaitzak hobetu egin dira, prezioetan presioa izateak eta zenbaitetan lehengairik eskura ez egoteak zailtasunak eragin dituzten arren.

Inbertsio-zorroa – Arania Taldea (Arania Corporación Industrial S.A.)



Egoitza: Zamudio (Bizkaia)

2025ean fakturatutakoa: 423 milioi euro (2024an baino % 10 gutxiago)

Sektorea: Siderurgia

Langileen kopurua 2025ean: 1.128 (2024an baino % 2 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2025

Finkatuz-en partaidetza (%): % 6,25

Finkatuz-en inbertsioa: 15 milioi euro

Hitzaurrea

Arania Taldeak 85 urte baino gehiagoko ibilbidea duen euskal industria-talde bat da, egoitza soziala eta fiskala Zamudion dituena, altzairuaren eraldaketan espezializatua, 430.000 tona altzairu baino gehiago ekoizteko ahalmena duena eta Europako merkatuan presentzia sendoa duena. Taldeak nazioarteko orientazioa du, eta ekoizpen-prozesuen berrikuntzan eta bezeroen beharretara egokitutako irtenbideen garapenean oinarritzen da. Hala, Europako merkatuetan eta merkatu globaletan duen posizioa sendotzen du bere jarduera-eremuan.

Negozio-ildoak eta merkatuak

Arania Taldearen jarduera lau eremutan banatzen da: Ijezketa (doitasunezko altzairuzko zumitza, hotzean ijetzia), Aratubo (doitasunez soldatutako altzairuzko hodiak), AR Racking (biltegiratze industrialeko sistemak) eta AR Shelving (karga arinetarako irtenbide modularrak). Taldeak Europan eta Amerikan hedatutako merkataritza-sarea du, 65 herrialdetan baino gehiagotan dago, eta esportazio-ratioa % 80 ingurukoa da.

Akzioen egitura

% 51,27 (Eric Arana Lahitte), % 42,48 (ISB Luxemburgo S.A.*) eta % 6,25 (Finkatuz).

EAEren gaineko eragina

Lau ekoizpen-instalazio ditu Euskadin (zehazki Zornotzan, Mungian, Galdakaon eta Gasteizen), baita bulego korporatiboak eta zentro teknologiko bat ere, Zamudion. 2025. urtearen amaieran, 666 langile zituen Euskadin, eta haietatik % 93k kontratu mugagabeak zituzten. Halaber, taldeak 1.002 euskal hornitzailerekin egiten du lan, eta 49 milioi euroko erosketak egiten dizkie, gutxi gorabehera, euskal hornitzaileei. 2025ean, Euskadin I+Gko jardueretan egindako inbertsioa 1,1 milioi eurokoa izan zen.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025eko emaitzak ingurune sektorial eta makroekonomiko txar batek baldintzatu zituen. Altzairuaren beheranzko zikloaren eraginari (pandemiaren ondoren sortutako ezegonkortasuna eta ondorengo ekitaldietako zuzenketa progresiboa) presio-faktore berriak gehitu behar zaizkio: ezegonkortasun geopolitikoa, enpresen eta inbertsioen konfiantza kaltetzen duena; Europako industria-ahultasun iraunkorra (eskari txikia du); altzairua Europara desbideratu duten AEBko muga-zergak (prezioak gutxitu eta AEBra eraldatutako produktuen esportazioak zaildu dituzte); dolarraren debaluazioa; eta Txinako inportazioen —altzairuzkoak zein produktu eraldatuak— bolumen gero eta handiagoa, Europako ekoizpenaren lehiakortasuna presionatzen dutenak. Testuinguru horrek Ijezketa eta Aratubo eremuei eragin die batez ere, eta moteldu egin ditu AR Racking proiektu handiak.

* Eric Arana Lahitte da sozietatearen % 100aren jabea.

Inbertsio-zorroa – Ohmnia (Ohmnia Electronics S.L.)



Egoitza: Gasteiz (Araba)

Sektorea: Elektronika eta eraldaketa metalikoa

2025ean fakturatutakoa: 165 milioi euro (2024an baino % 9 gehiago)

Langileen kopurua 2025ean: 924 (2024an baino % 5 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2025

Finkatuz-en partaidetza (%): % 24,90

Finkatuz-en inbertsioa: 35 milioi euro

Hitzaurrea

Ohmnia euskal industria-talde bat da, Gasteizen du egoitza, eta hainbat industria-sektoretarako fabrikazio aurreratuko irtenbideetan espezializatuta dago. Taldeak industrializazio-bazkide estrategiko gisa jarduten du ekipo originalen fabrikatzaileentzat (OEM), eta diseinutik eta garapenetik hasi eta serieko ekoizpenera arteko gaitasunak eskaintzen ditu.

Negozio-ildoak eta merkatuak

Ohmnia bi plataformatan egituratuta dago: Innometal (eraldaketa metalikoa)* eta Ohmnia (manufaktura elektronikoa). Taldean, 16 industria-ETE daude, 19 ekoizpen-instalaziotan lan egiten dutenak eta 126.000 m² baino gehiagoko industria-azalera dutenak. Ahalmena du hainbat sektoretarako diseinua, industrializazioa, fabrikazioa, mihiztadura eta muntaketa egiteko, besteak beste, energia berriztagarrietarako, defentsarako, sarbide-kontrolerako, elektromedikuntzarako eta mugikortasun elektrikorako.

Akzioen egitura

% 50,10 (Mirai Investments), % 24,90 (Finkatuz), % 12,50 (Carmen Lequerica Holding S.L.), % 12,50 (Fundación Bancaria Vital).

EAEren gaineko eragina

Ohmniak 11 egoitza eta ekoizpen-instalazio ditu Euskadin: 8 Araban, 2 Gipuzkoan eta 1 Bizkaian. 2025. urtearen amaieran, 357 langile zituen Euskadin, gehienak kontratu mugagabeekin. Taldeak 1.105 euskal hornitzailerekin egiten du lan, hau da, 19 milioi euroko erosketa-bolumena du. I+G+b arloan eginiko inbertsioa 0,4 milioi eurokoa da, eta euskal zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin elkarlanean aritzen da.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025ean, Ohmniak 165 milioi euroko salmentak izan zituen (2024an baino % 9 gehiago), baterakuntza-perimetroa handitu baitzen. Ekitaldi horretan, taldeak Arteixo sartu zuen (balio erantsi handiko sektore estrategikoetarako ekipamendu eta txartel elektronikoen diseinuan, industrializazioan, fabrikazioan eta integrazioan espezializatutako konpainia galiziarra); baita IMAT ere (aireportuetarako eserleku- eta altzari-sistemak diseinatzen eta fabrikatzen dituen konpainia arabarra). Hala, bere industria-gaitasunak eta sektore-dibertsifikazioa indartu zituen.

* 2025eko abenduan, akziodunek Innometal 2019 S.L. sozietatearen (eta haren mendeko sozietateen) partaidetzak Ohmnia Electronics S.L. sozietateari eskualdatu zizkioten, diruzkoa ez zen ekarpen baten bidez.

Inbertsio-zorroa – Arteche (Arteche Lantegi Elkartea S.A.)



Egoitza: Mungia (Bizkaia)

2025ean fakturatutakoa: 508 milioi euro (2024an baino % 15 gehiago)

Sektorea: Ekipo elektrikoen ondasunak

Langileen kopurua 2025ean: 2.857 (2024an baino % 10 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2025

Finkatuz-en partaidetza (%): % 6,40

Finkatuz-en inbertsioa: 75 milioi euro

Hitzaurrea

Arteche euskal industria-talde bat da, Mungian du egoitza, eta 80 urte inguruko ibilbidea du. Sektore elektrikorako ekipamenduetan, osagaietan eta irtenbideetan espezializatuta dago. Konpainiak energia sortzeko, transmititzeko eta banatzeko teknologiak garatzen ditu, eta arreta berezia jartzen du energia berriztagarrien integrazioan, sareen digitalizazioan eta sistema elektrikoaren fidagarritasunean. Konpainiak nazioarteko presentzia sendoa du, 80 bulego tekniko-komertzial baino gehiago ditu, eta Espainiako burtsa-merkatuan kotizatzen du 2021etik.

Negozio-ildoak eta merkatuak

Artechek hiru negozio-segmentu nagusitan garatzen du bere produktuen gama osoa: sare elektrikoen neurketa eta monitorizazioa, transmisio- eta banaketa-sareen automatizazioa, eta sarearen fidagarritasuna. 2025eko datuen arabera, salmenten kopurua hau izan zen: Neurketa eta monitorizazioa % 72, sareen automatizazioa % 17, eta fidagarritasuna % 11. 2025eko zifren arabera, hauek dira konpainiaren merkatu nagusiak: EMEA % 43, NAM % 32, LATAM % 12 eta APAC % 13*.

Akzioen egitura**

% 12,26 (free-float), % 52,45 (Ziskua Ber S.L.), % 20,21 (Velora Investa S.L.), % 6,40 (Finkatuz), % 5,64 (Onchena S.L.) eta % 3,04 (BBK Banku Fundazioa).

EAEren gaineko eragina

Artechek bi egoitza eta ekoizpen-instalazio ditu Euskadin, baita Mungian dagoen ultra goi-tentsioko laborategi bat ere. 2025. urtearen amaieran, 619 langile zituen Euskadin.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

Artechek 590 milioi euroko (2024an baino % 16 gehiago) kontratazioa eta 508 milioi euroko (2024an baino % 15 gehiago) salmentak izan zituen, eta *book-to bill*** ratioa bat baino handiagoa izan zen. Segmentuka, aurrerapenak izan zituen hiru eremuetan: neurketa eta monitorizazioa (+% 17), sareen automatizazioa (+% 8) eta fidagarritasuna (+% 17). EBITDA marjina % 15,8raino zabaldu zen (2024an baino % 3,1 gehiago), eta finantza-zor garbia 23 milioi euroraino jaitsi zen, DFN/EBITDA ratioa 0,3x izanik. Gainera, Artechek akziodunentzako ordainsaria handitu zuen: mozkina 0,79 euro izan zen akzio bakoitzeko, eta dibidendua 0,40 euro akzio bakoitzeko.

* EMEA (Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika), NAM (Mexiko, AEB eta Kanada), LATAM (Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika), APAC (Asia Pazifikoa eta Turkia).
** Akzioen egitura 2025eko abenduaren 31n.
*** Epe jakin batean jasotako eskaera berrien (booking) *eta benetan fakturatutako produktu edo zerbitzuen* (billing) arteko proportzioa neurtzen duen adierazle ekonomikoa.

Inbertsio-zorroa – Talgo (Talgo S.A.)



Egoitza: Gasteiz (Araba)

2025ean fakturatutakoa: 618 milioi euro (2024an baino % 8 gutxiago)

Sektorea: Trenbideak

Langileen kopurua 2025ean: 3.594 (2024an baino % 2 gehiago)

Finkatuz-ek inbertsioa egin zuen urtea: 2025

Finkatuz-en partaidetza (%): % 7,84

Finkatuz-en inbertsioa: 46 milioi euro

Hitzaurrea

Talgo konpainia industrialak 80 urte baino gehiagoko ibilbidea du trenen sektorean, eta espezializatuta dago material gurpildunen diseinuan, fabrikazioan eta mantentze-lanetan. Presentzia nabarmena du abiadura handiko eta oso handiko segmentuetan. konpainiak garraioaren efizientzia, irisgarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko irtenbide teknologikoak garatzen ditu, eta mugikortasuna modernizatzen eta gaitasun industrial aurreratuak indartzen laguntzen du.

Negozio-ildoak eta merkatuak

Talgok hauek egiten ditu: abiadura handiko (intercity) eta oso abiadura handiko trenak garatu eta fabrikatzea, baita tren-materialen mantentze- eta modernizazio-zerbitzuak ematea ere. Konpainiak gero eta presentzia handiagoa du Europan eta beste eskualde batzuetan, eta horrek aukera ematen dio bere jarduera dibertsifikatzeko eta tren-sektore globalean duen posizionamendua hobetzeko. 2025eko zifren arabera, hauek dira enpresaren merkatu nagusiak: Europa % 72 (eta, horren barruan, Espainia % 21), OMNA* % 15, Amerika % 4 eta munduko gainerako herrialdeak % 8.

Akzioen egitura**

% 46,48 (free-float), % 27,42 (Finkatuz, Clerbil, BBK Banku Fundazioa eta Vital Banku Fundazioak osatutako partzuergoa), % 9,37 (Pegaso), % 7,88 (Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatea), % 5,04 (Torreblas), % 3,53 (Nueva Compañía de Inversiones) eta % 0,28 (autozorroa).

EAEren gaineko eragina

Talgo industria-aktibo estrategikoa da, ekoizpen-zentro nagusietako bat baitu, eta funtsezko zeregina betetzen baitu fabrikazio- eta ingeniaritza-jardueretan. Euskadin, 700 langiletik gora ditu, eta Rivabellosan (Araba) du lantegia. Haren jarduerak indartu egiten du Euskadi tren-mugikortasunaren eta industria aurreratuaren erreferentzia-polo gisa kokatzea, eta, gainera, tokiko hornidura-katea bultzatzen du.

2025eko ekitaldiaren bilakaera

2025eko negozio-jarduera mugarri garrantzitsuek bultzatu dute, bai proiektua gauzatzeko, bai merkataritza-jarduerarako. Guztira 1.458 milioi euroko beste adjudikazio batzuk egin dira, eta eskaera-zorroa 4.466 milioi euroraino igo da (2024an baino % 7 gehiago). Talgo erreferentziako hornitzaile gisa finkatu da Europako Intercityn. Danimarkako eta Alemaniako merkatuetan jarri ditu bere tren berriak, eta bilakaera positiboa izan du magnitude operatibo nagusietan, trenbide-irtenbide efiziente eta jasangarrien eskaera jarraituaren une honetan.

* OMNA (Ekialde Ertaina eta Afrikako Iparraldea).
** Akzioen egitura 2025eko abenduaren 31n.

FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

3. FINANTZA-INFORMAZIOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Egoeraren balantzea

Finkatuz-ek **330 milioi euroko aktiboen bolumen osoarekin** itxi du 2025eko ekitaldia: % 78 ondare-tresnen epigrafeari dagokio, eta sozietatearen inbertsio-zorroa jasotzen du. Partida hori **beste lau inbertsiori** esker handitu da, eta horrek adierazten du **2024aren itxieran eskuragarri dagoen kutxaren zatirik handiena** sektore pribatuarekin batera inbertitzeko zuzeneko eragiketen bidez zabaldu dela.

Finkatuz-en finantza-egituraren ezaugarri nagusia da oraindik ez duela zorrik, eta Finantzen Euskal Institutuak emandako baliabideen bidez finantzatzen duela bere jarduera osorik, hura baita sozietatearen akziodun bakarra.


Ondare garbia 16,53 milioi euro handitu da 2024koarekin alderatuta, batez ere balio-aldaketagatiko doikuntzak epigrafearen bilakaeraren ondorioz (19,25 milioi euro), CAF eta Arteche sozietate kotizatuetako partaidetzen balioa handitu baita.

2025eko ekitaldiaren amaierako kapital soziala aldaketarik gabe mantendu da: 300 milioi euro. 2026an, Gobernu Kontseiluak 350 milioi euroko kapital-zabalkuntza baimendu zuen, Finkatuz-en inbertsio-ahalmena indartzeko.


2025eko aktiboaren osaera



Pasiboaren bilakaera (2024-2025)



Aktiboaren bilakaera (2024-2025)




Galdu-irabazien kontua


Finkatuz-ek 2025eko ekitaldia itxi du, eta, **zergak ordaindu ondoren, 1,13 milioi euroko mozkina izan du**; beraz, **aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 0,50 milioi euro gehiago izan dira**.

Emaitzaren hobekuntza bi arrazoirengatik gertatu da: **finantza-sarrerak handitu egin direlako** eta ekitaldian erregistratutako **ustiapen-gastuak gutxitu egin direlako**.

Finantza-sarrera guztiak partaidetzapeko sozietateengandik jasotako dibidenduetatik datoz: **1,52 milioi euro** dira, eta CAFi (1,38 milioi euro) eta Kaikuri (0,14 milioi euro) dagozkie.

Ustiapeneko beste gastuak, berriz, kanpoko zerbitzu profesionalei dagozkie batez ere, aholkularitza juridikoa, aholkularitza-zerbitzuak eta notario-gastuak barne.





FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE FINANZAS

4. ERAGIN ESTRATEGIKOARI ETA IGG-EI BURUZKO DATUAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKADI ERALDATUZ 2030

Jarduketa-ardatzak

Planaren oinarri izango diren **jarduketa-ardatz nagusiak** definitu dira.

- **Enpresak errotzea**: Euskadiko enpresa-sarea atxiki eta sendotzea, lurraldearekiko lotura eta lurraldean duen eragin positiboa sendotzeko.
- **Eraldatzea:** Hazkundea bultzatzea, berriz dimentsionatzearen, nazioartekotzearen, digitalizazioaren eta deskarbonizazioaren bidez.
- **Industria berria eta sektore berriak bultzatzea**: Sektore bultzatzaileak eta balio-kate berriak sortzen dituzten ekimen berritzaileak babestea.

Gobernantza-eredua

Planaren gobernantza-ereduak esparru bat ezartzen du zehaztutako jarduketak gauzatzeko, ikuskatzeko eta haien jarraipena egiteko.

Helburu nagusien artean dago gardentasuna, trazabilitatea eta kontrola bermatzea, jarraipen-mekanismo sistematikoak eta eragin-adierazleen koadro bat ezarrita.

Testuinguru horretan, adierazle-sistema funtsezko elementua da planaren gauzatze-maila eta eragina ebaluatzeko.

Prestatzeko oinarriak

Finkatuz-en partaidetzapeko sozietateek eman dituzte hurrengo orrialdeetako datuak. Finantzen Euskal Institutuak (FEI) ez du bere gain hartzen inolako erantzukizunik haien zehaztasunari edo osotasunari buruz.

Behar bezala interpretatzeko, hau adierazten da:

- Informazioa modu erantsian ematen da; beraz, adierazleen bilakaerak hainbat faktoreren baterako efektua islatzen du, eta ezin da banakako sozietateetara estrapolatu.
- Datuak 2024ko eta 2025eko ekitaldiei dagozkie. Sartutako sozietate guztiek urte naturalarekin bat datorren ekitaldi-itxiera dute.
- Ekitaldi bakoitzerako, partaidetzapeko sozietateen urteko magnitudeak jasotzen dira, Finkatuz sozietatearen kapitalean noiz sartu zen kontuan hartu gabe. Inbertsio berrien kasuan, ekitaldi honen eta aurreko ekitaldiaren kopuruak sartu dira. Ondorioz, partaidetzen perimetroaren aldaketek ez dute eraginik urte arteko aldaketetan.

Enplegua eta talentua

2024-2025eko enplegu-adierazleak*

Partaidetzapeko enpresek kalitatezko enplegua sortzen jarraitzen dute, talentu berria sartuta eta beren antolakuntza-gaitasunak indartuta.


Enpleguaren guztizko hazkundea

34.385

langile 2025ean

+% 7,2 | **+2.298 lanpostu gehiago**

Enplegu osoaren bilakaera



Guztira, 34.385 langile izan ziren 2025. urtearen amaieran, eta enplegua % 7,2 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Horrek agerian uzten du enpresa-hedapena eta etorkizuneko konfiantza.


Gazteen enplegua handitzea

5.891

gazte 2025ean

+% 14,3 | **+736 gazte**

Gazteen enpleguaren bilakaera




Gazteen enplegua batezbestekoaren gainetik hazi da, eta belaunaldi berriei eta belaunaldien arteko erreleboari bidea erraztu die.

Lanaren kalitatea eta egonkortasuna

31.402

Kontratu mugagabe 2025ean

Enplegatuen >% 90



10 langiletik 9k kontratu mugagabeak dituzte | **+1.527 lanpostu finko gehiago**

Langileen % 90ek baino gehiagok kontratu mugagabeak ditu, eta horrek lan-egonkortasuna bermatzen du hazkunde-ingurune batean.

* Erakutsitako datuak ekitaldi itxieran dagoen langileen kopuruari dagozkio.

Berdintasuna eta inklusioa

2024-2025eko enplegu-adierazleak*

Enpleguaren hazkundeak gizarte anitzago eta inklusiboago baterako funtsezkoak diren kolektiboei egiten die mesede, eta aukera-berdintasuna eta emakumeen eta seniorren talentuaren integrazioa indartzen ditu.

♀ Emakumezkoen enpleguaren hazkundea

7.943

langile 2025ean


+% 8,7

+639
Kontratatutako emakumeak

Emakumeen kopurua

% 22,8 → **% 23,1**
2024 2025


Emakumezkoen enpleguaren bilakaera




Emakumeen enpleguak gora egin du, 7.943 langile izateraino eta guztizko enplegutik gora; izan ere, 639 emakume gehiago sartu dira, eta haien garrantzi erlatiboa handitu da plantilletan.

= Soldata-arrakala gutxitzea**

1,09 → **1,07**
2024 2025



Emakumeen batez besteko soldataren bilakaera



Emakumeen batez besteko soldata gizonena baino erritmo biziagoan hazten da, soldata-arrakala txikiagotuta eta ordainsari-berdintasunerako politikak indartuta.

50+ Senior enpleguaren hazkundea


7.553

50 urtetik gorako profesionalak

+% 12,2

+821 pertsona

Senior enpleguaren bilakaera



Profesional seniorren enplegua nabarmen ari da hazten, eta, horri esker, talentu trebatuak errazago sartzen dira, eta ezagutza transmititzen da.

* Erakutsitako datuak ekitaldi itxieran dagoen langileen kopuruari dagozkio.
** Langileko batez besteko soldata zorroan dauden enpresen batez besteko soldataren batezbesteko haztatua izango da, ekitaldi itxieran dagoen langileen kopurua oinarritzat hartuta. Soldata-arrakalaren adierazlea da erakunde horietako gizonen batez besteko soldataren eta emakumeen batez besteko soldataren arteko zatidura.

Enpresak haztea eta sendotzea

Adierazle ekonomikoak (2024-2025)


Partaidetzapeko enpresak dimentsioan hazi dira, emaitzak hobetu dituzte, eta negozio-eredu efizienteago eta jasangarriagoetarantz jo dute.

Fakturazioaren hazkundea

+% 6,6

530 milioi euro baino gehiagoko salmenta gehigarriak

Fakturazioa (milioi euro)




Emaitza operatiboaren bilakaera

+% 20,1

Emaitza operatiboa (EBIT) % 20 hazi da (**103 milioi euro**), eta salmenten hazkunde-erritmoa hirukoiztu da

Emaitza operatiboa (EBIT) (milioi euro)




EBIT marjina hobetzea

+% 0,8

EBIT marjina **% 0,8** hobetu da, eta negozioaren errentagarritasuna bultzatu du

EBIT marjina (%)



Hazkunde ez-organikoa

7 eskuratze-eragiketa korporatibo azken bi ekitaldietan

2024	2025
4	3

Enpresa-sarea sendotzen laguntzen dute.

Hazkunde jasangarria

Hazkunde ekonomikoarekin batera, ingurumen-efizientzia ere hobetzen da, eta emisioak murrizten dira enpresa-jarduera eta -emaitzak handitzen diren bitartean.

Emisioak
-% 2,6 ↓
vs 2024

Emisioen intentsitatea*
-% 8,6 ↓
vs 2024

2. irismeneko emisioak
-% 40,6 ↓
vs 2024

* 1. eta 2. irismeneko emisioen arteko erlazio gisa kalkulatua, sarrera garbien gainean.

Nazioartekotzea eta merkatu estrategikoetan kokatzea

Nazioartekotze-adierazleak (2024-2025)

Enpresak sendo ezarrita daude nazioartean, gero eta presentzia handiagoa dute kanpoko merkatuetan, eta jarduera sortzeko gaitasun handia dute Euskaditik eta Espainiatik kanpo. Horrek erakusten du hazkundearen bultzatzaile nagusietako bat izaten jarraitzen duela.

Nazioarteko enpleguaren hazkundea

Atzerriko enplegua

15.303 (2024) → **16.812** (2025)

+% 9,9 hazi vs. 2024

Atzerriko enplegua % 10 inguru hazi da, eta filialak eta merkataritza-jarduerak finkatu dira atzerrian.

Nazioarteko salmentak

Atzerriko salmentak, guztira*

4.988 M€ (2024) → **5.090 M€** (2025)

+% 2,0 hazi vs. 2024

Nazioarteko salmentak **5.000 milioi eurotik** gorakoak izan dira, eta horrek kanpoko posizionamendu handia erakusten du.

Europa merkatu estrategiko gisa

Salmentak guztira Europan*


2.944 M€ (2024) → **3.170 M€** (2025)

+% 7,7 hazi vs. 2024

Europan duten kokapena indartzen dute, eta hazkundea, autonomia estrategikoa eta lehiakortasuna bultzatzeko merkatu estrategikoan duten presentzia sendotzen dute.

Dibertsifikazio geografikoa

Fakturazioa geografiaren arabera 2025*



Partaidetzapeko enpresek presentzia dibertsifikatua dute merkatu nazionaletan eta nazioartekoetan

* Geografiaren araberako fakturazio-adierazleak ez ditu barne hartzen Arteche eta ITP Aero konpainiak.

Berrikuntza eta eraldaketa

Berrikuntza adierazleak (2024-2025)

Enpresek apustu handia egiten dute berrikuntzaren eta eraldaketa teknologikoaren alde, eta 130 milioi euro baino gehiago bideratu zituzten 2025ean I+Gko eta digitalizazioko jardueretara.

Berrikuntzan eta eraldaketan inbertitzea


I+Gko inbertsioa eta digitalizazioa

132,8 milioi euro

2025ean

- **97,7 milioi euro** I+Gn* (+% 3,4)
- **35,1 milioi euro** digitalizazioan**

Inbertsio totalaren bilakaera (milioi euro)



I+Gko inbertsioa

94,5 milioi euro → 97,7 milioi euro

2024 2025

+% 3,4

I+Gko inbertsioak gorantz jarraitzen du, eta 98 milioi euro inguru inbertitu dira.

Digitalizazioa

77 milioi euro

Digitalizazioan 77 milioi euro inbertitu dira 2024an eta 2025ean

Ezagutza babestua sortzea

Erregistratutako patenteak

52 (2024) → **54** (2025)

Berrikuntza-jarduerak eta aktibo teknologikoen babesak martxan jarraitzen dute.

2025eko I+G proiektuen kasuak

- **CAF:** BEMU (*Battery Electric Multiple Unit*) trenen belaunaldi berria, askoz autonomia handiagokoa, efizientzia handiko irtenbideei esker, hala nola silizio karburozko erdieroaleetan (SiC) eta azken belaunaldiko baterietan oinarritutako trakzioari esker.
- **Arteche:** ECO-X transformadore optikoak garatzea eta erdi-tentsioko transformadoreen jasangarritasuna hobetzea SF6 (sufre hexafluoruroa) ezabatuta.
- **ITP:** Zamudioko ITP Aero ADMIRE zentroa inauguratu da, eta konpainia aeronautika jasangarriago baterantz (hibridazioa eta hidrogenoa) azkartzeko proiektua da. 24 milioi euroko inbertsioa egin da, eta 150 langilek baino gehiagok egingo dute lan.

* I+Gko inbertsioak barne hartzen ditu kapitalizatu gabeko gastuak eta inbertsioak. I+Gko inbertsioaren adierazleak ez du barne hartzen Arteche konpainia.
**Digitalizazioan egindako inbertsioaren barruan sartzen dira helburu hauek dituzten inbertsioak: teknologia modernizatzea, prozesuak automatizatzea, digitalizazio-irtenbideak edo 4.0 industriakoak sartzea eta efizientzia operatiboa hobetzea.

Euskadin errotzea eta bultzatzaile izatea

Lurralde-eraginaren adierazleak (2024-2025)

Enpresek uztartzen dituzte nazioarteko proiekzio gero eta handiagoa eta Euskadin ondo errotuta egotea, eta enplegua, jarduera ekonomikoa eta berrikuntzarako gaitasunak sortzen dituzte lurraldean.

Enpleguaren hazkundea

enplegua Euskadin

9.894 (2024) → **10.330** (2025)

+% 4,4 hazi vs. 2024

+436 langile

Hornitzaileei egindako erosketak

erosketak Euskadin

661,7 M€ (2024) → **685,9 M€** (2025)

+% 3,7 hazi vs. 2024

+24 M€ erosketak

Hornitzaileen sarea Euskadin

Hornitzaileak*

3.663 (2024) → **4.263** (2025)

+% 16,4 hazi vs. 2024

+600 hornitzaile

I+G Euskadin

I+Gko inbertsioa

38,0 M€ (2024) → **38,2 M€** (2025)



Partaidetzapeko enpresek I+Gn egiten duten inbertsio totalaren **% 40** inguru Euskadin garatzen da.

Egoitzen eta ekoizpen-zentroen kopurua

Euskadiko hazkundea gainerako tokietakoa baino handiagoa da, eta industria-errotzea indartzen du.

Euskadi

41 (2024) → **43** (2025)

+% 4, 9

Gainerakoak

306 (2024) → **311** (2025)

+% 1,6

Guztira

347 (2024) → **354** (2025)

+% 2,0

* Erosketa-bolumenaren eta hornitzaileen kopuruaren adierazleek ez dute barne hartzen Arteche konpainia.

IVF

94 403 38 49

info@ivf-fei.eus

www.ivf-fei.euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO